

ETA ZER DIO GAUR EUSKALTZAINDIAK?

«Euskaltzaindiak... hiztegi lana du bere eginkizun nagusienetako». «Euskaltzaindiak *aspaldidanik* hasiak [lanak] aurrera daramatza *ahalik eta lasterren buru emateko* asmoz». a) Hiztegi orokorra eta hiritartua, edo gaurkotua, Euskaltzaindiaren eginkizunetan sartzen dira... b) Hiztegi gintzarako batzorde bat sortu beharra ikusi da. Eta *lehenbaitlehen* sortu ere (Euskaltzaindiaren 1981eko abenduaren 28ko bilerako Agirietatik).

«Nork uka, gizarte-premiek, eskola, administrazio eta kaleko eskeek aurrea hartu digute. Egia da, beranduska gabilta. Eta, jakina, istilu hauek ez ziratekeen gertatuko, edota guztiz bestela, bederen, Euskaltzaindiak bere-berea duen hiztegi-lana *burururik* izan balu. Baina *hori ez da luzatuko*. Aurki ezarriko dira bideak» (E. Knorr, 1982ko urtarrilaren 29ko *Deia*-n).

«Hizkuntzaren mailan, zuzendaritzaren arazoa gaur orekan baldin badago, edo-ta zalantza nabarmenean, eta ez Euskaltzaindiaren manupean, arrazoi ximple batengatik da: urte on batzuetan izan ondoren gure Akademiak, *euskarak duen egiazko problematikari uko egin diolako*. Errazago baita (errazago baita, bai, erraza ez izanik ere) euskalki zaharraren gorabeherak eta bilketak aztertzea, euskara batuari buruz mamituz eta osatuz joatea baino» (Txillardegi, 1982ko urtarrilaren 19ko *Egin*-en).

Istilu haundi baten erdian. Eta gero?... Hitz bat estatistikazaleei: har bitez *Eusker*a aldizkaria eta Euskaltzaindiaren azken bi urte hauetako bilera guztien Agiriak, eta atera bedi polliki-polliki tratatu diren gaien batzuekiko bi kolumnatan, «euskalki zaharraren gorabehera» horiek alde batetan (Euskaltzaindia atzera begira) eta euskararen normalizazio premiei buruzkoak geroari begira bestean. Nora dago begira gaurko Euskaltzaindia? ■ *Joxe Azurmendi*